



ZERGA ARLOKO JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA: KORTESIAZKO EGUNAK

Uztailaren 21eko 312/2020 Foru Aginduak “kortesiazko egunak” deiturikoak ezarri eta arautzen du, hau da, zergadunek nola adierazi dezaketen zer egunetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak ezin izango duen zerga arloko jakinarazpen elektronikorik beren eskura jarri egoitza elektronikoa. Aukera hori 2020ko uztailaren 28tik aurrera egongo da eskuragarri, hau da, foru agindu hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

A) Zer dira kortesiazko egunak?

Zergadunek edo beren ordezkariak adierazitako egunak dira, zeinetan Gipuzkoako Foru Ogasunak ezin izango duen jakinarazpen elektronikorik jarri haien eskura.

B) Zer jakinarazpenetarako adierazi daitezkeen kortesiazko egunak?

Ogasun eta Finantza Departamentuaren **jakinarazpen elektronikoei** bakarrik eragiten die, haren **zerga jarduketa eta prozeduretan** eginak izan edo hari esleitu edo agindu zaion beste erakunde edo herri administrazio batzuen baliabideen gestioan eginak izan.

Ezin da kortesiazko egunik adierazi honako kasu hauetan:

- ✓ jakinarazpen arruntak (posta bidezkoak);
- ✓ zerga arlokoak ez diren jakinarazpen elektronikoa;
- ✓ edozein motatako komunikazioak, elektronikoa izan edo ez, zerga arlokoak izan edo ez.

C) Zer egun adierazi behar dira kortesiazko egun moduan?

Jakinarazpen elektronikoa urteko egun guztietan funtzionatzen du; beraz, larunbatak, igandeak eta jaiegunak kontuan hartu eta, hala badagokio, adierazi beharko dira.

D) Nork adierazi ditzake kortesiazko egunak?

Zergapekoak edo bere jakinarazpen elektronikoa sarbidea duen edozein ordezkariak adierazi ahal izango ditu egunak.

E) Zenbat kortesiazko egun adierazi ahal izango dira?

Zergadun bakoitzeko, urte natural batean 30 egun adierazi ahal izango dira gehienez.

Bitarteko elektronikoez harremana izatera behartuta dauden pertsona edo entitateen alta berrien kasuan, edo borondatez jakinarazpena aukeratzen dutenek adierazi ahal izango dute zeintzuk diren jakinarazpen elektronikoa jasotzen hasten diren urteko 30 egunak (edo urtea amaitu bitartera falta diren egunak, haien kopurua txikiagoa bada), alde batera utzita alta noiz gertatu den edo aukera noiz egin den.

2020rako, egun guztiak adierazi ahal izango dira (30eraino), alde batera utzita kortesiazko egunei buruzko foru agindua noiz argitaratzen den.

F) Nola adierazten dira kortesiazko egunak?

Bitarteko elektronikoa erabiliz, egoitza elektronikoko jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen postontzian bertan, betiere adierazi nahi den epealdia hasi baino gutxienez 7 egun natural lehenago.

Egun solteak izan daitezke; ez da derrigorrezkoa elkarren segidako egunen gutxienezko kopuru bat elkartzea.



G) Behin kortesiazko egunak adieraziz gero, aldatu edo deuseztatu al daitezke?

Bai, behin egunak adieraziz gero, aldatu eta deuseztatu daitezke, betiere 7 eguneko aurrerapena eta urteko gehieneko 30 egunak errespetatuta.

Ordezkariek beraiek adierazitako egunak bakarrik aldatu edota deuseztatu ahal izango dituzte, eta, beraz, ezin izango dituzte aldatu zergadunek edo beste ordezkari batzuek adierazitako egunak.

H) Behin kortesiazko egunak adieraziz gero, Foru Ogasunak beste bitarte batzuk erabiliz jakinarazi al dezake?

Bai, ohiko bitartekoak erabiliz jakinarazi ahal izango da (posta arruntez, agente bidez, interesduna bulegoan agertuta, ...), adierazitako kortesiazko egunak bateraezinak direnean administrazio jarduera berehala edo azkar gauzatzearekin.

I) Nola eragiten diote kortesiazko egunek prozeduren tramitazioari?

Kortesiazko egunen adierazpenak jakinarazpenean dakarren atzerapena Administrazioari leporatu ezin zaion luzamendutzat hartzen da. Hau da, atzerapen hori ez da sartzen prozedura ebazteko epearen kontaktetan.

J) Zertan eragiten du kortesiazko egunen adierazpenak?

Adierazitako egunetan ezin izango da jakinarazpen elektronikorik eskura jarri, baina adierazpen horrek ez die eragiten lehendik eskura jarri diren jakinarazpenen epeei.

Adibidea: ekainean zergadun batentzat 2, 9, 16, 17, 18, 23 eta 30 egunak adierazi dira, haren eskura jakinarazpen elektronikorik ez jartzeko.

EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12.	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

- a) 1. kasua: **ekainaren 8an** Foru Ogasunak jakinarazpen elektroniko bat jarri du haren eskura. Zergadunak edo horren ordezkariak ez badute epe barruan eskuratzen jakinarazpena, jakinarazpena **ekainaren 18an** gauzatutzat hartzen da.

Jakinarazpena epe barruan eskuratzeko 10 egun naturalak ekainaren 9tik 18ra bitarteko epealdia litzateke, nahiz eta epealdi horretan kortesiazko 4 egun izan eta, gainera, lehen egunean (ekainaren 9a) nahiz azken egunean (ekainaren 18a) hala adierazita egon.

Kasu honetan, jakinarazpen elektronikorik eskura ez jartzeko adierazitako egunek ez lukete batere ondoriorik izango.



b) 2. kasua: **ekainaren 16an** Foru Ogasunak jakinarazpen elektroniko bat sortu du.

Kasu honetan, ekainaren 19ra arte ez litzateke jakinarazpena eskura jarriko eta hura eskuratzeko 10 egun naturalak ekainaren 20tik 29ra bitarteko epealdia litzateke, nahiz eta epealdi horretan kortesiazko egun bat izan.

Zergadunak edo horren ordezkariak ez badute epe barruan eskuratzen jakinarazpena, jakinarazpena **ekainaren 29an** gauzatutzat hartzen da.

Kasu honetan, ebatzi eta jakinarazteko epea, halakorik badago, ekainaren 16an bukatu zela ulertuko litzateke, nahiz eta jakinarazpena ekainaren 19ra arte ezin izan den eskura jarri.